

# FEMINISMOA ANTIFAXISMOA IRAULTZA



**BATU ZAITEZ!**

# Batu zaitez borrokatzeko...

## **1. %100 publikoa, laikoa, kalitatezkoa, demokratikoa eta doakoa den hezkuntza baten alde, Haur Hezkuntzatik Unibertsitateraino.**

Euro publikorik ez irakaskuntza pribatuaren patronalari, ezta Elizari ere! Itunpeko eskola sare publikoan barneratzea. Ikasgelako ratioak gehienez 15 ikaslara jaitsi eta beharrezkoak diren irakasle eta langile guztiak kontratatzea.

**2. Osasun mentalerako eskubidearen alde.** Milaka psikologo eta psikiatra gehiago behar ditugu osasun publikoan eta lehen mailako arretan, baina baita ikastetxe, institutu eta fakultateetan ere. Osasun mentalak ezin du klaseko pribilegio edo negozio bat izan. Osasun pribatua eta farmazeutikak nazionalizatu behar dira, beren baliabide guztiak gizarte premien zerbitzura jartzeko!

**3. Feminismo borrokalari eta antikapitalista baten alde.** Aski da, indarkeria matxistarekin, justizia patriarkalarekin eta LGTBI kolektiboaren zapalkuntzarekin amaitu. Gaitz horietatik libre dauden ikasgelak nahi ditugu, arrazakeriarik eta faxismorik gabeak. Zigor eredugarria, tratu txar fisiko eta psikologikoen, bortxaketen eta emakumeen hilketen erantzuleentzat. Heziketa sexuala, inklusiboa eta askatzailea, ebaluagarria eta derrigorrezkoa hezkuntza sistemaren etapa guztietan, berdintasunean, errespetuan eta aniztasunean hezteko.

**4. Prekaritaterik gabeko oraina eta etorkizunaren alde.** Ez dugu onartzen krisi ekonomikoen eta sistema kapitalistaren logikaren biktima nagusiak izaten jarraitzea. Lan-eskubideak, ordaindutako praktikak, kontratu eta soldata duinak, etxebizitza eskuragarria eta zerbitzu publiko doakoak eta kalitatezkoak nahi ditugu.

**5. Faxismoaren eta kapitalismoaren aurka.** Eskuin muturra oso mehatxu larria da gehiengo zabala garenontzat. Baina ezin daiteke geldiarazi parlamentuetako hesi-itunekin edo boteretsuen zerbitzura dagoen justizian konfiantza izanez. Faxismoarekin ez da eztabaidatzen, borrokatu egiten da kaleetako mobilizazio masiboarekin eta programa iraultzaile bat defendatuz. Altxa dezagun erresistentzia antifaxista!



**Antolatu Ikasle Sindikatua, kontaktatu eta batu:**  
**WhatsApp 622 17 41 22 · [ikaslesindikatuah@gmail.com](mailto:ikaslesindikatuah@gmail.com)**  
**[ikaslesindikatua.net](http://ikaslesindikatua.net) · [libresycombativas.net](http://libresycombativas.net)**